

GALAXIARA

Fix azeri bat da, baina ez azeri normala, azeria ile gorriduna, kapela eta botaduna. Fix Londrestarra da eta izugarri gustatzen zaio abenturetan murgiltzea eta galaxiako izarrak ikustea, galaxia izarrez beteta dagoen zeru mugagabea da. Fixen abenturetan bere azkartasunaren bidez beti lortzen zuen abenturetan sartzea eta ateratzea. Fix, bere emaztearekin bizi zen etxe txiki batean. Fixek etsai oso lehiakorra zuen, beti baizegoen sekulako gogoarekin irabazteko.

Bat batean Fixen lagunak Fixi esan zion:

- Apustua, galaxiara joan behar zara urtebete baino lehenago bestela 10.000 € eman beharko dizkidazu-.**

Orduan Fixek sekulako irrika zuen galaxiara joateko. Baina lehen arazoa bere emazteari konbentzitzea zen, ehun saiakeratan lortu zuen konbentzitzea. Galaxiara joateko prestatzen ari zela Nasakoek deitu zioten beraien espaziontzietan joateko galaxiara eta hogeiei egunetan espaziontzi barruan zegoen jada galaxiara joateko prest. Eta bat-batean aireratu egin zen. Sekulako abiadura hartu zuen eta 6 egunetan galaxian zegoen.

Fix oso urduri zegoen ez zekielako noiz bueltatuko zen, bere emaztea oso urduri zegoen ere bere gizonarengatik eta egunero bere gizonaren lagun lehiakorra ikustera joaten zen . Ez zela bueltatuko esaten zion baina bere emazteak ez zion kasurik egiten. Bitartean bere gizona (Fix) egunero pentsatzen zuen Lurrean eta bere emaztean eta egunero deitzen zion telefono aren bitartez, baina ez zion erantzuten lo zegoen eta. Baina bat-batean espaziontzian alarma batek jo zuen Fixek ez zekien zer egin eta Nasakoek esan zioten ez dagoela konponbiderik eta ez zela Lurrera gehiago bueltatuko. Fix oso oso hasarre zegoen bere buruarekin, eta Fix sekulako zarata piloa ateratzen hasi zen , botoi guztiak ikutu zituen baina botoiek ez zuten ezer egiten. Fixek bere azkeneko deia egin zion bere emazteari. Bere emaztea negarrez hasi zen baina bazekien itzuliko zela eta Fixi esan zion:

- Zu, lasai Lurrera etorriko zara!-. Fixek ez zion erantzun baina bat-batean Fixi deitu zioten Nasakoek:**
- Fix! hartu soka bat eta lotu zure gorputzera, atera horrela kanpora joan zaitezke konpontzera!-.**
- Baii-. Fixek hori entzutean esandakoa egin zuen eta kanpora atera zen. Fix oso azkarra zenez matxura konpontzea lortu zuen eta Lurrera itzuliko zen!**

363 egun pasa zituen galaxian eta 364. egunean bueltatu egin zen, bere etsaiak 10.000 € eman zizkion eta bere emaztearekin pozik bizi izan zen. Londreseko albisteetan agertu zen eta bere laguna ez zen oso pozik bizi

jadanik 10.000 € galdu zituelako eta fix Londreseko pertsonairik inportanteena da lehenengo londrestarra galaxiara joan zela baina bere etsaiak zekulako erronka ipini eta gero entrebista bat egin zioten eta berak gezurrak esan zituen bera galaxiara joan zelako ez zela joaten esanez baina munduko detektibe guztiak ikertzen ari ziren baina bat-batean sekulako notiziak ari ziren azaltzen telebistan Fixen etsaiak esan zuena gezurra zela frogatu zuten eta kartzelara eramane zuten baita ere 100 eguneko sententzia ipini zioten eta Fixi abokatuek 100.000.000 € eman zioten. Presidente bihurtu zen Fix eta orain inglaterrako presidentea da eta orain bai, Fix bere familiarekin oso pozik bizi da.

Joa